

I. Eranskina: EGM moten irudiak

I. MOTAKO EGMa


Klitoriaren prepuzioa falta dela objektibatuko da, klitoria osorik edo partzialki erauzita nahiz erauzi gabe.



Irudian, klitori osoa erauzi dela ikus daiteke, eta haren lekuan orbain keloidea dago.

II. MOTAKO EGMa

Klitoria eta ezpain txikiak erabat edo zati batean erauztea, eta agian ezpain handiak ere motz daitezke.



Irudian, klitoria eta ezpain txikiak erabat erauzi direla ikus daiteke.

III. MOTAKO EGMa

Zulo txiki bat egongo da, gernua eta hilekoaren odola kanporatzeko. Uretra-meatua ezin da identifikatu, klitoria erauzita edo erauzi gabe, ezpain txikiak ebaki eta berriz kokatzearen ondorioz bagina-zuloa txikitzen duen zigiluak ezkutatzen duelako.



Irudian, baginara daraman zulo bat ikus daiteke, baina uretra-meatua ezin da ikusi, ezpain txikiak ebaki eta erdiko lerroan kokatu izanagatik ezkutatuta dagoelako.

DESINFIBULAZIOAREN TEKNIKA KIRURGIKOA

Genitalak antiseptiko batekin garbitu ostean, hatz erakuslea irekigunean barrena sartu behar da, orbainaren azpian, betiere desinfibulatu behar den eremua zenbatekoa den balioesteko. Irekigunetik pubiserantz ebaki bat egin behar da, erdiko lerroari jarraiki orbainaren gainetik eta uretra ikusgai geratu arte, baina ez gorago, hemorragiarik izan ez dadin. Gero, bi aldeak josi behar dira, bakoitza bere aldetik.

Teknikaren deskribapen zehaztua irakurri nahi izanez gero, eta kalitatezko irudiak ikusi nahi badira, hona hemen webgune hau: <http://www.uptodate.com/es/home> Female genital cutting (zirkunzisia).